

MOZIO ARRUNTA,
MENDEKOTASUNA ETA EZGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO PLAZA
PUBLIKOEN ESTALDURARI buruzkoa

EH BILDU udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, egoitzetako plaza publikoen estaldura dela eta.

JUSTIFIKAZIOA

2020ko urtarrilean, Estatuko Gizarte Zuzendarien eta Kudeatzaileen Elkarteak egindako txosten baten arabera, Hego Euskal Herrian 7.733 egoitza-plaza falta dira 65 urtetik gorako 100 pertsonako 5 plazara iristeko, OMEk gomendatuaren arabera.

18.522 egoitza-plaza publiko zein pribatu zeuden 2018an EAEn. Gehienek (13.984) finantzaketa publikoa zuten, %75ek, eta 4.538 pribatuak ziren. Beraz, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako egoitzetan, 65 urtetik gorako 100 pertsonako plazen ratioa 3,76koa izan zen; beraz, 6.063 plaza falta dira.

Azken hamarkadan, EAEn, egoitza publiko batek urtean 11.000 euro balio du –Espainiako estatuko preziorik garestiena–, eta 2012. urtean % 5eko ratioa baino ez du gainditu. Urte horretan egoitza-plazen kopurua ere handitu egin zen, 26.437 batuketa egin arte.

Urtebete pasatu ondoren, datuak eta plaza faltak berdin jarraitzen dute. Hain zuzen ere, otsailaren 1ean egindako adierazpenetan Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak aitortu zuten 2020an plaza irekierak gelditu direla osasun-alarma egoera dela eta, eta 2021era begira irekiera plan bat abiatuko dutela.

Donostiaren kasuan, joan den urteko urtarrileko INEren datuetan oinarrituta, adinari dagokionez, hiriko biztanle gehienak 35 urtetik gorakoak dira, auzo guztiak aintzat hartuta. Are esanguratsuagoa da Erdialdeko eta Parte Zaharreko kasua, bizilagun gehienak 64

urtetik gorakoak baitira. Bestetik, 2019ko gizarte-ekintzako saileko memoriaren arabera, hiriko adineko pertsonen artean 1.055ek eskatu zuten mendekotasunarekin erlazionatutako egoitza baliabide bat. Hiriko poblazioaren adin eboluzioa ikusita, aurreikusi daiteke eskaera hauek goranzko joera izango dutela etorkizunean.

Horregatik guztiagatik, EH BILDU udal taldeak honako mozio arrunt hau aurkezten du:

MOZIOA ARRUNTA

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, plangintza bat aurkeztu dezala Donostiak behar dituen egoitzetako mendekotasun eta ezgaitasun plaza publikoen estaldura bermatzeko eta 2020an izandako atzerapena orekatzeko.

Donostian, 2021eko otsailaren 5ean

Reyes Carrere Zabala

EH Bildu udal taldearen bozeramalea